



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko urriaren 26a

120. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako eta Estatuko gobernuak premiatzen dira lehenbailehen burutu dezaten bizitzeko gutxieneko diru-sarrera eskualdatzeko prozesua. Isabel Aramburu Bergua andreak aurkeztu du (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroko (KAIMZ) zuzendaritzak hiru hamarkada baino gehiagoz egin duen lana aitor dezan eta zentroaren arrakasta- eta prestigio-ereduari eutsi diezaion. Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da 2021eko apirilaren 30eko 20/2011 Legearen 54. artikulua alda dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako eta Espainiako gobernuak premiatzen dira konpromiso irmoa har dezaten EH Bildurekin inolako akordio politikorik ez hartzeko, horrek ETA banda terroristaren ekintzak espresuki gaitzesten ez dituen bitartean. José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztu du (5. or.).

#### F S A I L A:

##### **Galderak:**

- Galdera, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Funtzio Publikoaren Estatutua aldatzeko arau berri bat taxutzeari buruzkoa. Ahoz erantzuteko galdera bihurtzea (13. or.).

#### G S A I L A:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko 2021. urterako langileen plantilla organikoa. (14. or.).

---

**E saila:**

**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako eta Estatuko gobernuak premiatzen dira lehenbailehen burutu dezaten bizitzeko gutxieneko diru-sarrera eskualdatzeko prozesua.**

*ISABEL ARAMBURU BERGUA ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Isabel Aramburu Bergua andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako eta Estatuko gobernuak premiatzen baitira lehenbailehen burutu dezaten bizitzeko gutxieneko diru-sarrera eskualdatzeko prozesua.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Isabel Aramburu Berguak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, 2021eko urriaren 28ko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Urte bat eta lau hilabete igaro dira bizitzeko gutxieneko diru-sarrera indarrean sartu zenetik. Hura arautzen duen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege-dekretuak data bat ezarri zuen bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren eta autonomia-erkidegoetako gutxieneko errenten artikulazioa arautzeko; hain zuzen, 2020ko urriaren 31. la urtebete igaro da eta prestazio horren eskualdatzea oraindik ere gauzatu gabe dago.

Agerikoa da Nafarroarentzat zer garrantzitsua den arlo guztietan –eskumen eta autogobernuarena, kudeaketaren eraginkortasunarena eta behar handiena duten herritarrentzako onurarena–, Foru Komunitateak berak kudeatzea bizitzeko gutxieneko diru-sarrera.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako eta Estatuko gobernuak premiatzen ditu lehenbailehen burutu dezaten bizitzeko gutxieneko diru-sarrera eskualdatzeko prozesua, eta eskualdatze hori era integralean egin dezaten, gure errenta-bermeen sistema sendotzeko, pobrezia eta bazterkeriari aurre egiteko eta gizarte-kohesioan aurrera egiteko xedez.

Iruñean, 2021eko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Isabel Aramburu Bergua

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroko (KAIMZ) zuzendaritzak hiru hamarkada baino gehiagoz egin duen lana aitortzea eta zentroaren arrakasta- eta prestigio-ereduari eutsi diezaion.**

*ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuaren premiatzen baita Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroko (KAIMZ) zuzendaritzak hiru hamarkada baino gehiagoz egin duen lana aitortzea eta zentroaren arrakasta- eta prestigio-ereduari eutsi diezaion.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako Alberto Bonilla Zafrak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuaren premiatzen baita Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroko (KAIMZ) zuzendaritzak hiru hamarkada baino gehiagoz egin duen lana aitortzea eta zentroaren arrakasta- eta prestigio-ereduari eutsi diezaion.

Iragan martxoan jakin genuen Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroko (KAIMZ) zuzendaritza-taldeak —Esteban Gorostiaga doktorea buru— dimisioa emana zuela, zentrorako kirol-arloko goi-mailako teknikariaren lanpostu baten deialdi publikoa dela-eta Nafarroako Gobernuarekin izandako desadostasunengatik; izan ere, haien ustez, deialdiko baldintzek ez zituzten betetzen bikaintasun-zentro horretako goi-mailako kualifikazioko lanpostu bati eskatu beharreko baldintza espezifikoak.

Dimisioa emandako taldeak defendatzen zuen azken hogeita hamar urteetan KAIMZ nazioarteko erreferentzia-zentro bihurtu duen arrakasta-ereduari eustea, asistentziari, ikerketari eta prestakuntzari dagokienez, aintzat hartuz zentrorak, kirolariak artatzeaz gainera, gainerako herritarrei ere laguntza ematen diela errehabilitazioan, geriatrian, kardiopatiatan, haurren obesitate-arazoetan, minbizian edo ikerketan. Espezializazio handiko lan hori ez dator bat lanpostu berriaren deialdiarekin, KAIMZeko burutzak salatu zuen bezala.

Navarra Sumak eskatutako lan-bilkura batean, apirilaren 18an, Gorostiaga jaunak zentrorako zuzendaritzaren ordezkari gisa ohartarazi zuenez, «KAIMZ arriskuan dago». Izan ere, Esnaola kontseilariaren «etsimendua» salatu zuen, zentrorako eredu argi bat ez defendatzeagatik eta adostutako konponbide bat ez bilatzeagatik. Zentrorako aurreko zuzendariaren iritziz, goi-mailako kualifikaziokotzat jotako lanpostu horretara sartzeko gutxienez ere Kirol Zientzietako, Biomekanikako edo jardura fisikoarekin lotutako beste edozein espezializatetako doktorego bat exijitu beharko litzateke.

KAIMZeko zuzendaritza-taldearen jarrera kirol-federazioek eta Nafarroako kirolaren ordezkari nagusiek ere babestu zuten, eta Change.org-en «¡Salvemos el CEIMD!» (KAIMZ salba dezagun!) eskaera bultzatu zuten, zeinak jada mila sinadura baino gehiago baitauzka. Bitartean, hilabete hauetan zentrorako langileak noraezean sentitu dira, zuzendaritza dimisioa emanda egoteagatik eta zentroaren etorkizunari buruzko irizpide argirik ez egoteagatik, bai eta kudeaketa-eredua dela-eta dagoen ziurgabetasunagatik ere.

Azkenik, aurtengo urrian, KAIMZeko zuzendari berria izendatu zuten, aurreko zuzendaritzaren iritzia kontuan hartu gabe eta horrelako zentro baterako profesionalak behar duten prestakuntzaren espezifikotasuna dela-eta egindako gomendioak aintzat hartu gabe.

Horregatik guztiagatik, Navarra Suma talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du:

1. Publikoki aitor dezan hiru hamarkada baino gehiagoz Nafarroako Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroko zuzendaritzak egindako lana, lan bikaina egin baitu bai kirolariei, bai Nafarroako herritar guztiei laguntza, babesa, prestakuntza eta zerbitzua ematen, eta behar duen garrantzia eman diezaion, hainbeste urtez lan prestigiotsua egin ondoren.

2. Dimisioa emandako zuzendaritzari, Nafarroako kirolariei eta kirolaren arloko komunitateari entzun diezaion, sinaduren bidez beren jarrera erakutsi baitute kiroleko goi-mailako teknikariaren lanpostuarekin sortutako arazoari buruz, eta kon-

ponbide bat bila dezan gisa honetako zentro baterako profesionalak behar duten gaitasun profesionala eta berariazko kualifikazioa bermatzeko, lortutako bikaintasun-mailari eutsi ahal diezaion.

3. KAIMZeko arrakasta-eredua bermatu eta zain dezan, nazioko eta nazioarteko erreferentziako zentroa baita laguntzaren, ikerketaren eta prestakuntzaren esparruetan, eta exiji dezan bertako profesional guztiek eduki dezaten zentroak behar dituen lanak betetzeko espezializazioa.

Iruñean, 2021eko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

## **Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernuak premiatzen da 2021eko apirilaren 30eko 20/2011 Legearen 54. artikulua alda dezan.**

*NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK ETA NAFARROAKO PODEMOS AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernuak premiatzen baita 2021eko apirilaren 30eko 20/2011 Legearen 54. artikulua alda dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Berdintasunerako Ministerioak 2020an argitaratutako makroinkestaren arabera, 1,6 milioitik gora haur bizi dira amak indarkeria matxista pairatzen duen etxeetan. 2021ean bakarrik, 5 haur erail dituzte Espainian indarkeria bikarioaren ondorioz; 2013az geroztik, berriz, 42 izan dira eraildako haurrak.

Indarkeria bikarioa da seme-alabak erabiltzea haiek manipulatu eta amaren aurkako jarrera har dezaten, amari era horretan min emateko, ama gaizki sentiarazteko, gorrotoa eta beldurra sorrazteko eta, ondorioz, haien arteko harremana hausteko.

Azken kasua Bartzelonan gertatu zen abuztuan: aita batek bi urteko semea erail zuen hotel bateko gelan, bere emazte eta haurraren amari min emateko xedez. Senar-emazteak bereizteko prozesuan zeuden.

Adingabe horren amak zenbait lege-aldaketa egin daitezkeen eskatu du, indarkeria bikarioaren biktimei abizenak aldatzeko premiazko prozedura baliatzea ahalbideetako dutenak, ezin izan baitzuen halakorik egin haurraren hileta baino lehen.

Horren haritik, familia batzuek aldaketa hori egiteko izan dezaketen nahia eta beharra ulertzen dugu, baina abizenen ordena eta aldaketa erregulatzen duten arauak Estatukoak dira; hain zuzen, Kode Zibilarren 109. artikulua, Erregistro Zibilar buruzko uztailaren 21eko 20/2011 Legea

eta hein batean oraindik ere indarrean dagoen 1958ko azaroaren 14ko Erregistro Zibilaren Erregelamenduko 192tik 219ra bitarteko artikulua eta 365. artikulua. Hortaz, Nafarroako Foru Komunitateak ez du eskumenik pertsonak beren abizenak aldatzeari dagokionez eta ezin du gai horri buruzko araurik eman.

2021eko apirilaren 30ean indarrean sartu zen 20/2011 Legearen 54. artikuluan ezartzen dira abizenak aldatzeko eskaera egiteko bete behar diren baldintzak. Hala, 5. apartatuan xedatzen da genero indarkeriaren biktimen kasuan, haiei edo haien ondorengoei abizenak aldatzeko baimena ematen ahalko dela oro har aurreikusitako baldintzak bete beharrik gabe, eta kasu horietan baimentzen ahalko dela, premia edo segurtasun arrazoiak tarteko, nortasun osoa aldatzea ere, oro har aurreikusitako baldintzak bete beharrik gabe, erregelamendu bidez zehazten den prozedurari jarraikiz.

Dirudienez, abizen aldaketa soilik bizirik dauden pertsonentzat dago araututa, eta ez hildako, edo kasu honetan bezala, eraildako pertsonentzat.

Egia da aintzat hartu beharreko gaiak direla, oso sentiberak, eta ados gaude legerian jasotzeko

bideak aztertu behar direla, bizirik ateratzen diren biktimei ahalik eta laguntza eta babes handiena emateko eta oraindik ere min handiagoa pairatzea saihesteko.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du 2021eko apirilaren 30ean indarrean sartu zen 20/2011 Legearen 54. artikulua, zeinetan ezartzen baitira abizenak aldatzeko eskaera egiteko bete behar diren baldintzak, alda dezan eta beste apartatu bat sar dezan, xedatuko duena genero indarkeriaren biktimen edota bere gurasoek eraildako haien seme-alaben kasuan, abizenak aldatzeko baimena ematen ahalko dela oro har aurreikusitako baldintzak bete beharrik gabe, eta kasu horietan baimentzen ahalko dela, premia edo segurtasun arrazoiak tarteko, nortasun osoa aldatzea ere, oro har aurreikusitako baldintzak bete beharrik gabe, erregelamendu bidez zehazten den prozedurari jarraikiz.

Iruñean, 2021eko urriaren 21ean

Foru parlamentariak: Nuria Medina Santos, Patricia Perales Hurtado eta Ainhoa Aznárez Igarza

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako eta Espainiako gobernuak premiatzen dira konpromiso irmoa har dezaten EH Bildurekin inolako akordio politikorik ez hartzeko, horrek ETA banda terroristaren ekintzak espresuki gaitzesten ez dituen bitartean.**

### *JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako eta Espainiako gobernuak premiatzen baitira konpromiso irmoa har dezaten EH Bildurekin inolako akordio politikorik ez hartzeko, horrek ETA banda terroristaren ekintzak espresuki gaitzesten ez dituen bitartean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (Na+) talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

10 urte iragan dira ETak iragarri zuenetik —Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen lan onaren ondorioz, hura babesten zutenak isolatzeko adostasun politikoaren ondorioz, nazioarteko kolaborazioaren ondorioz eta Espainiako gizartearen errefus irmoaren ondorioz— bere jarduera terrorista odoltsua amaitzea erabaki zuela, gure herrialdean 52 urte baino gehiagoz jardun ondoren eta, beste krimen batzuen artean, 853 pertsona hil ondoren.

Gizarteak ETaren orbana pairatu gabe bizi ahal izan duen 10 urte hauetan, alderdi politiko batek ez ditu behin ere gaitzetsi ez ETaren krimenak, ez terrorismoa. EH Bildu da alderdi hori, zeinak beti eutsi baitio ez gaitzesteko jarrerari, eta zeinak ez baitu lagundu, ezta ere, bandak egin zituen eta oraindik ere argitu gabe dauden 376 krimen argitzen, ez egile materialei dagokienez, ez

eta haien kolaboratzaile edo sustatzaileei dagokienez ere.

Gure herrialdean, oro har, eta zehazki Nafarroan gertatutako krimenak ez gaitzesteko jarrera hori diren etika demokratikoaren funts-funtseko printzipioen aurkakoa da, eta behar adinako arrazoia izan behar du ETaren indarkeria gaitzesten duten gobernuak eta alderdi politikoek akordiorik ez egiteko hura gaitzesteko gai ez denarekin.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako eta Espainiako gobernuak premiatzen ditu konpromiso irmoa har dezaten EH Bildurekin inolako akordio politikorik ez hartzeko, horrek ETA banda terroristaren ekintzak espresuki gaitzesten ez dituen bitartean.

2. Mozio hau igortzea Foru Parlamentua eta Gorte Nagusiak osatzen dituzten alderdi guztiei.

Iruñean, 2021eko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuaren hizkuntza planaren garapenari buruzkoa. Galdera 2021eko irailaren 13ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatzizko galdera egin du (PES-00240). Hari erantzuteko, honako informazio hau igortzen dut:

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak bi motatako eginkizunak betetzen ditu departamentuen hizkuntza planak direla eta. Alde batetik, departamentu moduan jarduten du; bestetik, bere unitate organikoen artean Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia, Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusia eta Komunikazioko eta Era-kundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusia badaudenez, Euskarabidearekin batera, departamentu guztientzako aholkularitza-, laguntza- eta koordinazio-lanak egiten ditu.

Egindako galderei erantzunez, hasteko, departamentuaren hizkuntza plana garatzeko egin behar izan diren ekintza eta lan batzuk zehaztuko ditugu.

Plan hori egiteko, 4. puntuan zehaztutako jarraibideei jarraitu diegu. Antolamenduaren eta jarraipenaren egitura.

Horretarako, departamentuak 5 teknikari eta departamentuaren hizkuntza planaren arduradun izanen den pertsona bat izendatu ditu.

Lehenengo bilera bat egin zen plana aurkezteko, eta, gero, zenbait bilera tekniko ere egin ziren departamentuak eta Euskarabideak izendatutako pertsonen artean, planaren garapenari eta ezarpenari buruzko aholku- eta akonpainamendu-lanak egiteko.

Horretaz gainera, azarorako departamentuen arteko batzorde teknikoaren bilera bat programatu da.

Departamentuaren hizkuntza planaren ezarpean parte hartzen duten pertsonen 2020ko azaroaren 4an prestakuntza jaso zuten, eta azarora-ko beste prestakuntza-ekintza batzuk planteatu dira.

Plana garatzeko, besteak beste honako unitate hauekin elkarlanean ari gara:

- Departamentua (planaren arduradunak, koordinazio-teknikariak, idazkaritza teknikoak, kabine-  
tea)
- Euskarabidea (Hizkuntza Baliabideen Zerbitzua-Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua)
- Komunikazio Zerbitzua-Gobernuaren Eledu-  
naren Bulegoa
- Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia
- Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arre-  
taren Zerbitzua

Lehenengo galderaren erantzuna:

Zertan dago Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuaren hizkuntza planaren garapena? Zein da departamentu honetan ezarritako sei helburuen baitan zehaztu diren jarduketako ildoetako bakoitza betetzeko epea?

Jarraian, honako hauek zehaztuko ditugu: hizkuntza-planaren jarduketa-ildoak, unitate arduraduna eta ezarritako helburuen betetze-egoera.

### 1. helburua. lehentasunezko unitate organikoetan hizkuntzaren derrigortasuna ezartzea

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Lehentasunezko unitateak identifikatzea, derrigortasunari dagokionez	Departamentua eta Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua	Egina
Plantilla Organikoan sartu beharreko lanpostu elebidunen kopuruari buruzko txosten-proposamena egitea	EAPGZ eta FPZN	Egina
Balorazioa egin ondoren, txostena igortzea Funtzio Publikoari, sindikatuekiko negoziazioa hasteko	Departamentua	Garatzen ari da
Proposamena negoziatzea Funtzio Publikoaren Negoziatio Mahaian	Departamentua, Euskarabidea eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia	Datozen hilabeteetan
Sindikatuakiko negoziazioaren ondoren, hizkuntza-eskakizuna esleitu beharreko lanpostuak zehaztea	EAPGZ eta FPZN	Datozen hilabeteetan
Hizkuntza-eskakizuna esleituta daukaten lanpostuei buruzko txosten teknikoak egitea	EAPGZ	Datozen hilabeteetan
Txosten teknikoak aztertu ondoren, behin betiko onestea Plantilla Organikoan hizkuntza-eskakizuna eduki beharreko lanpostuak	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Lanpostuen proposamena Funtzio Publikoari igortzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan

Departamentuak, Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzuarekin lankidetzan, derrigortasuna dela-eta lehentasunezkoak diren unitateak identifikatu ditu.

Ondoren, Departamentuak lanpostuen proposamen bat egin du, identifikatutako lehentasunezko unitateei dagokienez. Proposamen hori

EAPGZri igorri zaio, aholkua eman eta lanpostuen egokitasuna egiazta dezan

Ondoren, lanpostuak proposatzeko txosten teknikoak egin dira.

Datozen hilabeteetan aurreikusita dago helburu horren jarduketa-ildo guztiak aurrera eramatea.



## 2. helburua. Lehentasunezko unitate organikoetara esleitutako departamentuko langileei euskarazko prestakuntza eskaintzea

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Prestakuntza Atalari hizkuntza-eskakizunen behin betiko proposamena igortzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atalari eskatzea Ikaskuntza eta Hobekuntza Plan bat diseina dezan	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Hizkuntza-eskakizuna esleitu ez zaien langileen komunikazio-beharra aztertzea	Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atala	Datozen hilabeteetan
Departamentuari ikaskuntza eta prestakuntza plan bat aurkeztea	Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atala	Datozen hilabeteetan
Prestakuntza plana inplikaturako pertsonen beharren arabera egokitzea	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Plana onestea eta langileen prestakuntza hastea	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Ikaskuntza eta prestakuntza gauzatzea	Euskarazko Prestakuntza eta Egiaztatze Atala	Datozen hilabeteetan

Helburu hau gauzatu ahal izateko, hizkuntza-eskakizunen proposamenak behin betikoa izan behar du. Lehen jarduketa-ildo hau garatzen ari da, eta 2022ko lehen hilabeteetan gauzatuko da.

## 3. helburua. Behar diren neurriak hartzea arreta euskaraz jasotzea eskatzen duten pertsonen arreta euskaraz eman dakien

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Hizkuntza-irizpideen gida bat idaztea, herritarrei arreta bi hizkuntzetan emateko	EAPGZ	Garatzen ari da
Jarduteko protokolo bat zehaztea, arreta bi hizkuntzetan emateko hizkuntza-irizpideen gida aplikatzeko	Departamentua	Datozen hilabeteetan
Gida nola zabalduko den zehaztea	Departamentua	Datozen hilabeteetan

Euskarabideak aholkuen zerrenda bat prestatu du, lehen erantzun presentzial edo/eta telefono bidezkoa emateko. Argitaratzeko fasean dago. Behin argitaratuta, Departamentuak zabalkundearako protokolo bat ezarriko du.

**4. helburua. Herritarrei idatzizko informazioa (digitala eta paper bidezkoa) ele bitan ematea**

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Koordinazioaren, itzulpen beharraren eta idatzizko dokumentazioa analizatzearen ardura izanen duten pertsonak izendatzea	Departamentua	Garatzen ari da
Gabeziak eta hutsak identifikatu eta lehentasunak ezartzea	Departamentua eta Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua	Garatzen ari da
navarra.es atariaren arduradunarekin koordinatzea	Departamentua, Komunikazio Zerbitzua eta Itzulpen Atala	Egina, garatzen ari da
navarra.es-en ostatatuta ez dauden webekin lehentasunak ezartzea	Departamentua eta Itzulpen Zerbitzua	Garatzen ari da
navarra.es-en ostatatuta ez dauden webetarako aurreikustea zein baldintza bete behar dituzten elebidunak izateko	Departamentua	Garatzen ari da
Departamentuaren aplikazioak direla-eta lehentasunak ezartzea, elebidunak izan daitezten	Departamentua eta Itzulpen Zerbitzua	Garatzen ari da
Inprimaki eta formulario elebidunak eskaintzea	Departamentua eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Izapideen fitxak ele bitan argitaratzeko prozedura	Departamentua, Komunikazio Zerbitzua eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Izapide-fitxa guztiak ele bitan argitaratzea	Departamentua, Komunikazio Zerbitzua eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Gardentasunaren Atarian argitaratzen denaren zirkuitua zehaztea	Gardentasunaren Ataria eta Itzulpen Atala	Garatzen ari da
Itzulpen-eskaerak egiteko jarraibideak egitea	Departamentua eta Itzulpen Atala	Egina

Departamentuak sistema berri bat jarri du, Euskarabideak diseinatu, itzulpenak eskatu eta kudeatzeko. Zerbitzu bakoitzeko pertsona bat edo gehiago izendatu dira, eta horiek izanen dira eskaerak egiteko baimena dutenak; halaber, departamentuaren eskaera guztien arduraduna izendatu da. Euskarabideak tresna informatiko bat eskuratu du, hura erabiltzeko jarraibideak eman ditu eta eskatzaileei prestakuntza eman die.

Hizkuntza planaren 2.4 puntuan, unitate bartzuen komunikazioen eta baliabideen diagnosiko bat egin zen, eta datozen hilabeteetan aurreikusitako eta osatuko da.

Gardentasun Atarian argitaratzen denaren zirkuitua zehazteko garaian, lehentasuna eman zaie aurreproiektuei eta foru legeen eta foru dekretuen proiektuei. Horretarako Gobernuaren Idazkari-tzako eta Araugintzako Zerbitzuak komunikatutako prozedura bat badago.

Gaur egun, pandemiaren inpaktua dela eta, lehentasuna eman zaio informazio digitalaren arloko jarduketak egiteari. Esparru horretan, Aurrerapen Digitalerako Zerbitzuak hala eskatzen duten departamentuei euskarria eskaintzen die elebidunak izateko egokiak diren formatuak dituzten webetarako eta aplikazioetarako.

Kontuan hartuta lehentasuna eman zaiela informazio digitalaren arloko ekintzei, bi eremutan jardun dugu batez ere: web orriak eta izapideak.

Departamentuak, navarra.es Atariaren Atalarekin eta Euskarabidearekin lankidetzan jardunda, navarra.es-en ostatatuta dauden eta zerbitzu nahiz izapideak eskaintzen dituzten gaikako web orrien diagnostikoa egin du. Horretaz gainera, Departamentua eta Euskarabidea navarra.es ataritik kanpo ostatatutako web propioen diagnostikoa egiten ari dira.

Esparru horretan egindako ekintza guztien arrazoa da herritarrengan eragin handiagoa izatea.

## 1. Web orriak

### 1.1. Web orri propioak

Web orri propioak identifikatzen ari dira. Haien hizkuntza-egoeraren diagnostiko bat egin da. Edozein ekintza egiteko orduan, lehentasuna ematen zaie herritarrengan inpaktu handiena dutenei.

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuaren kasuan, honako hauek dira identifikatutako web orri propioak:

Nafarroako Gazteriaren Institutua

Nafarroako Berdintasunerako Institutua

Bi web orri horiek ele bitan daude.

### 1.2. Gaikako web orriak

Gaikako web orriak, izenak adierazten duen bezala, gaiari lotuta daude, eta ez departamentuei, zeren eta gaiak, orokorrean, egonkorrak baitira eta departamentuak, berriz, legegintzalditik legegintzaldira alda baitaitezke. Esparru honetako lana, hala eta guztiz ere, departamentuekin egin da.

Gaikako weben kasuan, departamentua da edukiak sortzeko ardura duena, eta navarra.es Atariaren Atala, berriz, haren kudeaketaz arduratzen den unitatea da.

Web hori nahiko estatikoak dira, gaur egun berrikusten, gaurkotzen eta formatu berriz janzten ari direnak. Modu koordinatuan lan egiten ari da departamentuaren, navarra.es Atariaren Atalaren eta Euskarabidearen artean, gaikako web horiek hobetzeko-lanak (azala, izapideak eta beste web

eduki batzuk barne) egiten direnean, web orri elebidunak sor daitezten.

Honako hauek dira departamentuarekin zerikusia duten gaikako web orriak

Gazteria

Genero-berdintasuna

Segurtasuna

Honako hau da orri horien hizkuntza-egoera:

Gazteria: Ele bitan dago, baina izapide batzuk gaztelaniaz baino ezin dira egin.

Genero-berdintasuna: Ele bitan dago, baina izapide batzuk gaztelaniaz baino ezin dira egin.

Segurtasuna: gaur egun, orria gaurkotzen ari da, eta, aldi berean, euskara itzultzen ari da.

## 2. Izapideak

Izapideei dagokienez, ikusten ari da denboran egonkorrak diren izapide batzuk badaudela, epe jakin batzuk badituztenak.

Lehentasunak ezarri dira jarduketa-irizpideetan, izapideak elebidunak izan daitezten, eta lanean hasi gara denboran egonkorrak diren eta erabiltzaile gehiago dituzten izapideak ere prestatzeko.

Horretarako, izapideen, sarrera-kopuruaren eta izapide horiek editatzen dituzten pertsonen diagnostikoa egin da, eta, aurreko puntuan bezala, departamentuarekin, Euskarabidearekin eta navarra.es Atariaren Atalarekin lankidetzan ari gara.

Protokolo bat sortu da izapide egonkorrak itzultzeko.

## 5. helburua. Herritarrak artatzen diren espazio fisikoen errotulazioa eta informazio-elementu elebidunak (bulegoak, arretaguneak ...): hizkuntza-paisaia.

Jarduketa-ildoak	Arduraduna	Egoera
Fitxa bat sortzea jardun behar den tokietarako	EAPGZ	Egina
Fitxa osatzea jardun behar den tokietarako	Departamentua	Egina
Fitxa bat sortzea jardun behar den tokien diagnostikoa egiteko	EAPGZ	Egina
Diagnostikoa osatzea unitate bakoitzeko langileekin	Departamentua	Hemendik gutxira
Fitxa aztertzea proposamena egiteko	EAPGZ	Hemendik gutxira
Itzulpen Atalera bidaltzea	Departamentua	Kasua bada
Elementu berriak jartzea	Departamentua	Kasua bada
Lanpostuen identifikazioa diseinatzea	EAPGZ	Egina
Lanpostuak identifikatzea	Departamentua	Garatzen ari da

### Hizkuntza-paisaia

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak egoitza ugari ditu. Gaur egun, jardun beharreko tokien fitxak sortu dira, eta hemendik gutxira diagnostikoa egingen da.

### Identifikatzaileak, pinak

Euskarabideak pinak eta mahai gaineko identifikatzaileak sortu ditu, eta Departamentua hizkuntza-eskakizuna duten langileen eta eskatzen duten pertsonen artean banatzen ari da, herritarrek jakin dezaten zein unitatetan ematen den zerbitzu elebiduna.

### **6. helburua. Zerbitzu publikoak adjudikatzekeo hizkuntza-irizpideak ezartzea**

Zerbitzu publiko horiek ematen dituzten enpresen diagnostiko bat egiten ari da. Euskarabidea hizkuntza-irizpideak ezartzeko klausulen zerrenda bat prestatzen ari da. Heldu den urtean garatuko da.

Egin al da departamentuaren plantilla organikoan beharko lirakekeen hizkuntza-eskakizunen zehaztapena? Hizkuntza plan berriaren arabera, zenbat lanpostutan ezarriko da profil elebiduna?

Zein izanen da, guztira, departamentuan izanen diren lanpostu elebidunen portzentajea?

Momentuz, ezin da lanpostuen proposamenari buruzko datu zehatzak eman, zeren eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako langile funtzionarioen eta estatutupekoen Negoziazio Mahai Orokorrean negoziazio-prozedura gauzatu behar baita, Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuaren zazpigarren xedapen gehigarriak ezartzen duen moduan. Prozesu hori datozen hilabeteetan egitea aurreikusi da.

Eman daitezkeen datuak plantillaren egungo egoerari buruzkoak dira. Departamentuak oinarrizko 2.330 lanpostu dauzka, eta horietatik 57 dira elebidunak, hau da, plantilla organikoaren % 2,44.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko urriaren 7an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

## **Galdera, Funtzio Publikoaren Estatutua aldatzeko arau berri bat taxutze-ari buruzkoa.**

### *AHOZ ERANTZUTEKO GALDERA BIHURTZEA*

Navarra Suma talde parlamentarioko Marta Álvarez Alonso andreak eskatu du Funtzio Publikoaren Estatutua aldatzeko arau berri bat taxutze-ari buruzko idatzizko galdera ahozko galdera bihurtzea eta hurrengo Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordeko gai-zerrendan sartzea (10-21/PES-00229).

Kontuan izanda Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194 artikulua ezartzen duela galderen idatzizko erantzuna galdera argitaratu eta hurrengo hamabost egunen barruan eman beharko dela, eta Lehendakaritza honi agintzen diola, aipatu epean Gobernuak erantzunik bidali ez badu, kasuan kasuko batzordearen hurrengo bilkuraren gai-zerrendan sartzea, galdegilearen eskariz, eta hori dela Marta Álvarez Alonso andreak egindako eskaeran aipatzen den galdera-

ren kasua —galdera erabaki honekin batera eransten da—,

Lehendakaritza honek ERABAKI DU:

**1.** Xedatzea Funtzio Publikoaren Estatutua aldatzeko arau berri bat taxutze-ari buruzko galdera Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordearen hurrengo bilkurako gai-zerrendan sartzea, kontseilari eskudunak ahoz erantzun dezan.

**2.** Erabakia hau Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariari eta Marta Álvarez Alonso andreaki igortzea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

## Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko 2021. urterako langileen plantilla organikoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 25ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 14.1 artikulua xedatzen du Legebiltzarraren zerbitzuko langileen plantilla organikoa urtero onetsi behar dela, Langileen Batzordeak txostena egin ondoren. Hori dela-eta, ikusita Zerbitzu Orokorretako buruak Legebiltzarraren zerbitzuko langileen plantilla organikoari buruz eginiko proposamena, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 14.1 artikuluekin bat eta Langileen

Batzordeak txostena egin ondoren, hona ERABAKIA:

1. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen honako plantilla organiko hau onestea 2021. urterako:

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Parlamentuko web orrian argitara dadin.

Iruñean, 2021eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### a) Funtzionarioak

	Kop.	Maila	Izendapen askea	Esklusi-bitatea	Bateraezintasuna	Lanpostu osagarria	Mailako osagarria	Berariazko osagarria	Arrisku berezia	Zuzendaritza-postuko osagarria *
<b>IDAZKARITZA NAGUSIA</b>										
Legelari nagusia (1)	1	A	X	55		98.30		35		
<b>Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren idazkaritza</b>										
Administrari burua (2)	—	C	X			62.68	12			10
Administraria	2	C				62.68	12			
<b>Prensa atala</b>										
Atalburua (3)	—									20
Komunikazioko teknikaria	1	A			35	51.30				
Ikus-entzunezkoen komunikazioko teknikaria (4)	1	A			35	51.30				
Administrariak (4)	1	C				62.68	12			
<b>Protokolo Atala</b>										
Atalburua (3)	—									20
Protokoloko teknikaria (7)	1	B			35	49.40				
Administraria	1	C				62.68	12			
Protokoloko harremanetako idazkaria (8)	1	C	X			62.68	12			
<b>ZERBITZU JURIDIKOAK</b>										
Legelaria	5	A		55		81.30				
<b>Kudeaketa Parlamentarioko Atala</b>										
Atalburua (3)	—	A								20
Administraria (4)	5	C				62.68	12			
<b>ZERBITZU OROKORRAK</b>										
Atalburua (5)	1	—	X	55		61.30				
Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	2	B			35	49.40				
Mantenimenduko ofizial teknikaria	1	C				56.50	12		10	
Gelazain nagusia (9)	—	D	X			53.00	15			10
Gelazainak (10)	11	D				53.00	15			

	Kop.	Maila	Izendapen askea	Esklusi- bitatea	Bateraezin- tasuna	Lanpostu osagarria	Mailako osagarria	Berariazko osagarria	Arrisku berezia	Zuzendaritza- postuko osagarria *
<b>ARGITALPENAK, ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO ZERBITZUA</b>										
Atalburua (5)	1	—	X	55		61.30				
Itzultzaileak (6)	5	A		55		35.30				
Transkribatzaileak (4)	6	C				62.68	12			
Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista	2	B			35	49.40				
Administrariak (4)	2	C				62.68	12			
<b>KONTU-HARTZAILTZA ETA EKONOMIA GAJETARAKO ZERBITZUA</b>										
Atalburua (5)	1	—	X	55		61.30				
Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	2	B			35	49.40				
Administraria	2	C				62.68	12			
<b>INFORMATIKAKO, IKUS-ENTZUNEZKOEN SISTEMETAKO ETA TEKNOLOGIAKO ZERBITZUA</b>										
Atalburua (5)	1	—	X	55		61.30				
Informatikako goi mailako teknikaria	1	A			35	51.30				
Informatika sistemetako erdi mailako teknikaria	2	B			35	49.40				
<b>Sistemen kudeaketarako atala</b>										
Atalburua (3)	—									20
Sistema informatikoetako teknikari-ofiziala	1	C				62.68	12			
Ikus-entzunezkoen teknikari-ofiziala	1	C				62.68	12			
<b>NAFARROAKO ARARTEKOAREN BULEGOA</b>										
Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	1	B			35	49.40		20		
Administraria	2	C				62.68	12			

Oharrak:

- (1) Izendapen askea, Parlamentuko legelarien, Kontuen Ganberako legelarien eta Nafarroako Gobernuo aholkulari juridikoen artean. Plantilla organikoaren argitaratze-egunean, Nafarroako Parlamentuko legelari batek betetzen du.
- (2) Izendapen askea, Parlamentuko administrarien kidegoko funtzionarioen artean.
- (3) Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen arteko merezimendu-lehiaketarako deialdi bidez bete behar da.
- (4) C1 mailako euskara-titulua duen lanpostua.
- (5) Parlamentuko teknikarien kidegoko funtzionarioekin bete behar da. Lanpostu honen ordainsariak A mailari dagokion soldata hartuko da oinarritzat gehi A mailako soldatari erreferentziatutako osagarriak
- (6) Itzulpen eta interpretazio eginkizunak dituen lanpostua.
- (7) B1 mailako ingeles-titulua duen lanpostua.
- (8) Izendapen askeko lanpostua, Legebiltzarreko Mahaiak izendatua Nafarroako Parlamentuko eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio C edo D mailako funtzionarioen artean
- (9) Legelari Nagusiak izendatua, gelazainen kidegoko funtzionarioen artean.
- (10) Mantentze-lanetako laguntzailearen eginkizunak dituen lanpostua, iraungi beharrekoa, zeina mantentze-lanetako laguntzaile bihurtuko baita.

\* Zuzendaritza lanpostuko osagarria. A mailako soldatari erreferentziatua.

**b) Behin-behineko langileak****Lehendakariaren kabinetea eta talde parlamentarioen laguntzaileak**

<i>Kop.</i>	<i>Lanpostua</i>	<i>Izendapen askea</i>
1	Lehendakaritzako Kabineteko burua	BAI
1	Lehendakariaren idazkaria	BAI
1	Mahaiko kideen idazkaria	BAI
13	Talde parlamentarioen laguntzaileak. 4 Navarra Suma; 3 PSN; 2 Geroa Bai, 2 Bildu; 1 Podemos-Ahal Dugu Elkartea; 1 Askotariko taldea-I-E	BAI

Nafarroako Parlamentuak laguntzaile bat ordaintzen dio talde parlamentario bakoitzari talde parlamentarioko bost parlamentari bakoitzeko edo zatikiko.

**Arartekoa**

<i>Kop.</i>	<i>Lanpostua</i>	<i>Izendapen askea</i>
1	Idazkari Nagusia – Aholkulari teknikoa	C
3	Aholkulari teknikoa	C
1	Nafarroako Arartekoaren kabinetea	G

C: Nafarroako Arartekoaren Bulegoko behin-behineko kargua - izendapen askea

G: Kabineteko behin-behinekoa - izendapen librea